

Mondragon Team Academy ekintzailtza-unitateak barne-ekintzailtzaren aldeko apustua egin du, krisiari, ingurune global eta lehiakorrei aurre egiteko.

2013/06/20

Jardunaldiak Donostian izan ziren eta bi egunez iraun zuten, leitmotiv honekin: ekintzailtza era zabalagoan ulertzea eta enpresek eta gizarteak barne-ekintzailtza oinarritzko elementutzat hartzea, beren negozioetarako eta gero eta ingurune globalizatuago eta lehiakorragoetan irauteko. Gai horren inguruan eztabaidatzeko elkartutako pertsonen ezaugarria, beraz, hauxe izan zen: ekiteko grina edo beren negozioen etorkizunak barne-ekintzailtzaren eredia aintzat hartu behar duelako ikuspegia. Mondragon Unibertsitatea ekintzailtzako liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan. Horregatik ireki du foro hori, gizarteak ekintzailtzaren arloan zokoraturik utzi ohi duen alderdi hau lantzeko: dagoeneko abian den enpresa baten barruan ekitea. Enpresa baten barruan negozio berriak abian jartzea funtsezko elementua da negozioak eta konpainiak eraldatzeko. Eta horrek berebiziko garrantzia du bizi garen ingurune global eta aldakorrean.

Bi egunetan, ekainaren 11n eta 12an, Basque Culinary Centerren instalazioak ekiteko modu horri buruzko elkargune eta eztabaidagune bihurtu ziren, beren negozioetan barne-ekintzailtza mota hauek garatu dituzten konpainia eta taldeen eskutik: zerbitzuen internazionalizazioa eta dibertsifikazioa edo negozio berriak abian jartzea. "The TEAMtalks" izenburupean, zenbait konpainiatako barne-ekintzailtzako taldeek zehatz-mehatz azaldu zuten nola egungo egoera ekonomikoak, hain konplexua izanik, aldaketa bat eskatzen duen gure inguruko enpresetan, ohituretan eta baita negozio-ereduetan ere.

Zoko berriak

Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen ekitea oso garrantzitsua dela, inguru guztietan onartzen da ekintzailtza gure herrialdean aberastasuna eta enpresa berriak sortzeko motorra dela. Baina, zer gertatzen da barne-ekintzailtzarekin? Ekiteko eredu hori bigarren maila batean geratu da, ekintzailtzak nolabait ostendurik. "The TEAMtalks" jardunaldien erdigunean honako baieztapen hau koka liteke: "Zailagoa da enpresa sendo handi batek irautea enpresa berri bat sortzea baino". Hala da, aurrekariak frogatzen dute hori egia dela. Baina enpresek, hain ingurune globaletan eta lehiakorretan iraungo badute, eraldatzeko eta egokitzeko gai izan behar dute, zoko eta premia berriak bilatuz. Enpresak eta pertsonak ez badira premia horiek ikusteko gauza, iraupena oso zaila dute gaur egun. Hain zuzen, handicap horri aurre egiteko antolatu zituen jardunaldiok Mondragon Unibertsitatearen ekintzailtza-unitateak, Mondragon Team Academyk –aurten bosgarren urteurrena beteko du Finlandiako Team Academyko taldeekin lotuta–. Horietan, parte-hartzaileek barne-ekintzailtzaren inguruko esperientziak aztertu eta azaldu zituztelarik. Topaketa horretan, profesionalak ekiteko modu horretan interesatuta dauden pertsonekin harremanetan jarri, esperientziak trukatu eta barne-ekintzailtzari arrakastaz ekin dioten enpresaburuek esan dezaketena entzun ahal izan zuten.

'The TEAMtalks'

Jardunaldietako lehen eguna ekainaren 11 izan zen, asteartea, eta honako enpresa hauek hartu zuten parte: CAFek internazionalizazioa aurkeztu zuen barne-ekintzailtza gisara, eta teknologia txikiko tokiko enpresatik nazioarteko enpresa liderra izatera nola iritsi den azaldu zuen; BATZ automozio-alorreko enpresak negozio berriak abian jartzeko esperientziaren berri eman zuen, hain zuzen enpresak berak lehengo negozioari eutsiz eta sendotuz abian jarri zuen spin-off-a;



Alemaniko Hettich konpainiak, Gipuzkoan faktoria txiki bat duenak, gogoeta egin zuen multinazional baten barruan bakarra izateko oportunitateaz; eta, azkenik, pertsonak oinarri dituen Net enpresa-elkarteak hartu zuen parte.

Bigarren eguna ekainaren 13a izan zen, asteazkena, eta honako enpresa hauek ezagutarazi zituzten beren esperientziak: Ulma taldeak adierazi zuen nola jakin duen teknologoa hibridoak erabiltzen, eraikuntza-alorretik abiatuta negozio berriak sortzeko; H-Enea etxetresna elektrikoaren alorreko konpainiak negozio-aukera berriak aurkitu ditu erabiltzailearen eta kontsumitzailearen lankidetzaren eta hurbiltasuna baliatuz; Init enpresa, berriz, teknologien kontsultoretzatik osasunari, itsas bizitzari edo arte digitalari lotutako beste jarduerak batzuetara zabaldu da. Horiek guztiak izan ziren barne-ekintzaitzaren alorreko esperientziak azaldu eta horien inguruan gogoeta egin zuten enpresak.

Bestalde, ekainaren 13an, ostegunean, Mondragon Team Academyren 5. urteurrena ospatzeko ekitaldia izan zen.

Mondragon Team Academy

Izan ere, jardunaldi hauek Mondragon Team Academyren 5. urteurrenaren esparruan kokatzen ziren. Mondragon Unibertsitatearen ekintzaitzaren unitatea 500 talde-ekintzailez osatuta dago. Horrenbestez, estatuko ekintzaitzaren komunitaterik handiena da.

Mondragon Team Academy unitatea Tiimi Akademia hezkuntza-organismoaren nazioarteko sarearen barruan dago. Organismo hori Jyväskylä-ko Zientzia Aplikatuaren Unibertsitatean (Finlandia) sortu zen orain dela 20 urte. Team-company bakoitza bere ikasketa-planarekin sortzen da, eta emaitza bikainak lortu dituzte denek. Hori dela eta, izugarriko ospe ona lortu dute; izan ere, ikasleen % 36k bere negozioa sortzea lortu dute. Hau da, ekintzaile kopurua beren nazioko batez bestekoa baino handiagoa izatea lortu dute.

Mondragon Team Academy 2007an sortu zen, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean. Erabiltzen duen metodologiak talde-ekintzaitzaren eta eginez ikastea edo "learn by doing" ditu oinarri.

Mondragon Team Academyren helburua bere ingurunean balio kooperatiboak dituzten eta ikasketa aktiboa erabiltzen duten talde ekintzaileak sortzea da. Unitateak zeregin akademikoak nahiz ekintzaitzaren proiektuak betetzen ditu.

www.theteamtalks.wordpress.com